

B

BARREN

TOKIKOM



“Aldaketa eta egoera berrien zain bizi gara kartzelan”

Jokin Urain, euskal presoak. Parot doktrina ezarri zioten 2009an



ELGOIBARKO UDALA



Etxean, sailkatu zaborra gaika

Eman izena edukiontzi marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo arreta@elgoibar.net



ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

LO SAKONA ETA HORRENBESTEZ ATSEDEN HARTZEA ESTUKI LOTUTA DOAZ KOLTZOI ON BAT IZATEAREKIN. BEHAR BEZALA ATSEDEN HARTZEKO, ONDO AUKERATU BEHARRA DAGO KOLTZOIA, EZ DUGULAOK ALFERRIK BIZITZAKO ZATI HANDI BAT IGAROTZEN LOTAN. HORRETTARAKO, KOLTZOIAREN GERUZEI ERREPARATU BEHAR DIEGU. BERAZ, ZERGATIK EZ DUGU MATERIALIK ONENETAN INBERTITUTUKO? QUERCUS DA AUKERAKETA FIN, DOTORE ETA ZORROTZENA.



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel.: 943 743 734

183\12
UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

MASAJEAK

22\12

VICTORIA IRAEGI

Esku terapiak
• Kiropraxia
• Dranatzaile linfatikoa
• Osteopatia
• Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astehenetik
Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko
kalea, 40 (atzealdea)
Elgoibar
Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplantak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel.: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIA!
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel.: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12
FISIO&MÁS

FISIOTERAPIA AURRERATUA ETA KIROL BERREGOKITZEA

- Esku-terapia.
- E.P.I © (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, estriak)

OSASUNERAKO ARIKETA AGINDUA (Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

ENTRENAMENDU GIDATUA.

Aupa Zen Medikuntza Estetika Zentrua

Jausoro plaza, 1-Elgoibar (Sta. Klaran, Udaletxeko zubitik gertu)
Tel.: 667 95 36 28

Ekainaren 15ean, Miarritzera

Kaixo, eta besarkada bero bat bidaltzen dizuet elgoibartar guztioi Uruguaitik. 28 urte pasatu dira nire herritik urten nuela, momentuan zeuden eraso politikoengaitik, Euskal Herriaren kontrako zapalkuntza eta errepresioagatik.

Gaztetatik hartu nuen erabakia eta konpromisoa, borrokatzea zela Euskal Herria askatzeko bide bakarra. Urteetan zehar, gauza asko pasatu dira. Baina orain, bake prosezua batean gaude eta denon bultzada behar du, batez ere Euskal Herriak merezi duelako.

Gaur egungo agertokira iristeko, bide eta konpromisoak behar dira.


Horregaitik, elgoibartar guztioi gonbita egiten dizuet ekainaren 15ean Miarritzen elkartzeko. Gure batasun oihua gure herriaren arnasa da. Denon artean Euskal Estatua eraikitzeko, askatasuna eta eskubideak irabazteko.

Borrokaren balioa indartuz lortuko dugu Euskal Herriaren askatasuna.

Agur bero bat elgoibartar guztiei. Laster ikusiko garen asmoz agurtzen naiz.

Animo, eta denok Miarritzera.

Jo ta ke, irabazi arte.



Josu Lariz,
Uruguain dagoen preso iheslaria

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Elgoibartar guztioi gonbita egiten dizuet ekainaren 15ean
Miarritzen elkartzeko. Gure batasun oihua gure herriaren arnasa da"**



**TXIKI EGUNERAKO
KAMISETAK SALGAI!**
Elgoibarko Izarraren bulegoan

10€ tan
(Bazkideek 9€ tan)

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argotia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argotia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK

Eskerrik asko

Arnaldo askatu herri ekimenetik eskerrak eman nahi dizkizuegu pasa den asteko ekitaldi arrakastatsuetako herrikide eta partehartzaileei. Alde batetik Alex Txikoni, ostegunean, *Bajo Cero* filmaren emanaldian, eskainitako hitzaldi interesgarriagatik eta bere konpromisoagatik, eta baita Ainhoa Lendinezi ere, egindako aurkezpenagatik eta eskainitako laguntzagatik. Baita ere Morkaiko Mendizale Elkarteari, euren babes eta estaldura zinez garrantzitsua izan baita ekimen bateratu honetan..., eta noski, eskerrak Herriko Antzokia lepo bete zenuten herritarroi!

Larunbateko manifestaldi arrakastatsuko partehartzaileei ere gure eskerrik beroenak. Herriarri konpromisoa ere beharrezkoa izango da Arnaldo etxeratze-eta. Ez da erraza azken aste honetan Madridik jasotako beste erabaki gogor hauek zamatzat eraman beharra. Idatzi honen bitartez, azkenik, animoak eta besarkada bero bat eman nahi diegu garai gogor hauetan senitartekoei. Arnaldo askatu, bostak askatu!

Arnaldo Askatu Herri Ekimena ☺

Ikastolaren Eguna

Ikastola Egunaren antolatzaileen izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu pasa den zapatua, ekainaren 8a, egun berezia eta arrakastatsua izan zedin lagundu zuten guztiei, hau da: Elgoibarko Udala, Eroski Center, Eroski Viajes, Caja Rural, Bankoa, Banco Guipuzcoano, Euskadiko kutxa, Urkotronik, Beristain Logistika Banaketa, Exclusivas Pelegrin, Exclusivas Gorla, Bodegas Lan, Iturri taberna, Jai Alai, Lanbroa, Iriondo, Kaia, Karakate jatetxea, Armueta Harategia, Balcabo Alkorta, Mary Kay, Nava inprimategia.

Eskerrik beroenak era berean parte hartu zenuten guztioi. Datorren urtean ere festa berezi hau antolatzen laguntzeko eta elkarlanean aritzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Gogoratu nahi dizuegu errifak eta karten lote bat falta dela banatzeko. Hementxe dituzue zenbakiak: Rifetako 1. saria: 526 zenbakia, eta 2. saria: 998 zenbakia. Karten hirugarren lotea zazpi bihotz gorriko karta gorria (Mary Key produktua, urdaiazpiko bat eta LAN ardo kaxa bat). Sari hauek jasotzeko epea ekainaren 21a artekoa da.

Ikastola Egunaren antolatzaileak ☺

Eskerrik asko

Mila-mila esker Trinitate jai hauetan Ospas

eta Sabinen omenaldia horren egun polita izan zedin posible egin zenuten guztioi:

Bai omenaldiaren antolakuntzan jardun zenuten guztioi: jai-batzordekoei, prestaketa lanetan lagundu edota lanean jardun zenuten kolaboratzaile guztiei, udaletxeko partaideei zein abadeari. Bai omenaldia horren polita izan zedin parte hartu zenuten artista guztioi ere: koruari, bertsolariei, musika eskolako abeslariari, dantzariari, aurkezleari, trikitilariari, biolin-jotzaileei... eta baita Aizpe Elkartearen bazkari goxo-goxoa eman zeniguten sukaldari eta zerbitzariari ere.

Aipatu ez ditugun arren, bere onena eman zuten gainerako denei ere, eskerrik asko. Eta baita Trinitateraren zein bazkaritara gerturatu zineten ere. Omenaldi polit eta ahaztezina izan zelako, eskerrik asko!

Longantetar eta Loiolatar familien partez ☺

'Elgoibar bi erroberatan'

Elgoibar bi erroberatan egitasmoaren antolatzaileen izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu pasa den igandea, ekainaren 9a, egun berezia eta arrakastatsua izan zedin lagundu zuten guztiei. Hau da: Beristain banaketa, Lagun taldea txirrundulari Eskola, Elgoibarko Udala, Gurutze Gorria, Danobat, Baltasar Pelotazale Elkartea, Jai-Alai taberna, Usua Kafetegia eta Nava Inprimategia; eskerrik beroenak baita ere parte hartu zenuten guztioi eta laguntzen egon zen koadrilariari. Datorren urtean hamargaren edizioan ikusiko garen ilusioarekin eta eguraldia geure alde izango dugulakuan, mila esker denori eta datorren urtera arte.

Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkartea ☺

Ni ez naiz lapurra

Sare sozialetan zabaldu dituzten argazki batzuen arabera, ni eta nire ahizpa Elgoibarko dendetan lapurretan ibili gara, eta hori gezurra dela argitu nahi dut eskutitz honen bidez. Guk ez dugu ezer harrapatu, eta ez diogu inori kalterik egin. Hori horrela izan balitz, atxilotuta egongo ginatke, baina ez dago gure aurkako salaketarik ere! Irudi horiek agertu direnetik kalean gaizki begiratzen gaituzte. Min handia egin digute. Egoera hau salatu dugu Udaltzainguan, eta badakigu gaia epaitegietan dagoela. Espero dut irudi horiek sortu dituen harrapatzea, eta egin duen kaltea ordaintzea.

Luminita Curt ☺



**Janire
Elordi**

la konturatu ordurako, letren munduan murgilduz beste solasalditxo bat egiteko txanda iritsi zaigu, Maita!

Eta gaur zera daukat buruan bueltaka: Gorroto dut letra txikia! Bereziki, irakurri gabe oharkabea pasatzea helburu duen letra txikia. Gorroto dut, izaten duelako zerbait ezkutuan. Informazioa hor

egoten da, baina benetako helburua ez da izaten guri argibideak ematea.

Badira letra txikiz idatzitako testu luzeak, askotan sinatu behar izaten ditugunak: kontratuak, aseguru polizak, baldintza zerrenda luzeak, hipotekak...

Eta badira hiru hitz xumez osatutako testu laburrak, legeak hala agintzen duelako soilik idatzi direnak. Produktuen jatorriaren berri ematen digutenak esaterako.

“Gorroto dut letra txikia! Bereziki, irakurri gabe oharkabea pasatzea helburu duena”

Irakurtzen hasteko eroso eserita bazaude ere, ipurdia altxatu eta etxeko despentsara joateko proposamena egiten dizut, bertan letra txikien bila hasteko. Normalean, supermerkatu erosketak egitera goazenean, irakurtzeko astirik izaten ez dugun letra txiki horien bila hasteko proposatzen dizut. Kontserbako edozein potori heltzea daukazu, baina bereziki zainzuriak proposatzen dizkizut. Zainzuriak, nik neuk ikaragarri gustuko ditudalak!

Nik, kontserbok erosi edo ireki aurretik, errezeloz begiratzen diet potoko letra txiki horiei. Ze ez pentsa, kasualitatez eskura etorritako lehenengo lataren barruan Nafarroako zainzuriak egongo direnik! Eta gertu produktutakoak jan nahi ditudalako, ozeanorik zeharkatu ez duten zainzuri sinple batzuk jan nahi ditudalako, Nafarroakoen bila aritzen naiz.

Zer diote zure etxeko potoetako letra txikiek?



**Maitane
Mendikute**

Letra txiki horien atzetik gai zabal eta sakona dakarzu gaur gure solasaldira, Jani!

Zenbat istorio desberdin ezkututzen diren haien atzean, ezta? 9.999 urtera arte preferenteak direla eta bizi guztiko aurrezkiak atera ezin dituen 80 urteko gizona, etxe gabe gelditu, baina hipoteka ordaintzen jarraitu behar duen bizilaguna...

Baina gaiari nonbaitetik heldu behar, eta nire etxeko amairuko poteak begiratzen hasi naiz, zeuk proposatu bezala. Eta bai, etxean dauzkadan zainzuriak eta pikillo piperrak Perutik ekarriak dira, nahiz eta kostatu zaidan hori esaten zu-

ten letra txikiak aurkitzea. Egia esan, barru-barrutik banuen neuk ere errezeloa... Eta aitortu behar dizut (nahiz eta ez harro) batzuetan letra txikiei ez-ikusie ere egiten diedala, eta ozeanotik haratagoko zainzuriak erosten ditudala, merkeagoak direlako.

Eta ariketarekin jarraituz, soinean daramatzadan kiroleko praken etiketa begiratzea otu zait. Hain euskalduntzat dauzkagun TERNUA-ko arropen ere *Made in Vietnam* txiki bat daramate.

“Etxean dauzkadan zainzuriak Perukoak dira, nahiz kostatu zaidan letra txikia aurkitzea”

Eta horrela, zorionez edo zoritxarrez, produktu askok eta askok daukate letra txikia, Jani! Helburua, kostu txikiekien ahalik eta etekin handiena lortzea. Honek dakartzan ondorioak, berriz, larriak: Nafarroako nekazariak langabezia, Bangladeshko arropa lantegian 1.000 hildako baino gehiago, esklabotza garaia gogorarazten diguten hainbat eta hainbat egoera...

Eta, gainera, modernoak garela uste izango dugu.

Bitartean, badirudi Peru eta Bangladesh bezalako herrialdeetan ekonomiaren suspertzaile handiak direla exportaziorako nekazaritza eta arropen industria bezalako jarduerak. Non dago guzti honen muga?

Beste behin ere, pertsonak ikatza gara dirua egiteko makinarentzat!

 **PEDRO MIGUEL URRUZUNO, S.KOOP**

OHIKO BATZAR NAGUSIA
Deialdia

Eguna : 2013ko ekainaren 20a
Ordua : 20:30ean lehen deialdian eta 21:00etan bigarrenean
Tokia : Ikastola. Ernuaranbide, 7 – Elgoibar

 **MEKANOSA**

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Elgoibarko Udalaren kontra egingo duela iragarri du Carlos Urkijok presoen senideentzako onartutako laguntzengatik

EAJ, EHBildu, PSE-EE eta PPren botoekin onartu dute udal ordenantza

Presoen senideek kartzelara bisitan joaten direnean izaten dituzten garraio gastuen zati bat estaltzeko diru-laguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalbatzaren Osoko Bilkurak. Udalean ordezkari-tza duten alderdi guztiek aho batez hartutako ordenantza izan da. Barixakuko osoko bilkuran onartu zuten, eta berehala etorri zen Carlos Urkijo Espainiako Gobernuak EAEn daukan ordezkariaren erantzuna. Prentsa ohar baten bidez, Urkijok jakinarazi zuen helegitea jartzeko asmoa zuela, agiri horretan ETAko presoen senideen bidaiak diruz laguntzea jasotzen delakoan. Ordenantzan ETAko presoen aipamen zehatzik egiten ez bada ere, erabaki horren atzean “asmo argia” dagoela esan zuen, eta “hizkuntza manipulatu” erabaki hori “mozorrotzea” leporatu zion Elgoibarko Udal Gobernuari. “Amarru ezaguna da oso, baina ez diote ziririk sartuko zuzenbidezko estatuari”, adierazi du.

Terrorismoaren Biktimen Elkartek (AVT), berriz, Elgoibarko Udalaren, eta bereziki, Javi Nuñez PPko zinegotziaren kontra jo

du. “Biktimak umiliatu eta ETAko terroristei mesede egiten dien zentzugabekeria berri hau salatu nahi dugu”, adierazi dute elkartearen webgunean zintzilikatu duten komunikatu batean. Galdera batekin bukatu dute idatzia: “Zertarako balio dute Carlos Urkijoren ahaleginek, ‘akatsak’ bere alderdikideek egiten badituzte?”.

Udal ordenantzan jasotako baldintzak

Hainbat arau eta baldintza jaso dituzte ordenantzan. Batetik, Elgoibartik espextera arteko bidea egiteko, kilometroko 0,10 euroko diru-laguntza onartu zuten. Presoen familia bakoitzak 500 euro jaso ahalko ditu gehienez hilabetean, eta hilean gehienez hiru bidaiak lagunduko dituzte diruz. Laguntzak jasoko dituzten familietako kideek Elgoibarren erroldatuta egon beharko dute azken hiru urteetan. Era berean, espextera sartu zituzten unean preso horiek Elgoibarren erroldatuta egotea ere eskatzen dute. Ordenantza ez da oraindik indarrean sartu, baina tramitea hasita dago.

25 urte bete dira ETAK Patxi Zabaleta eta Sebastian Aizpiri hil zituenetik



Artxiboko irudia

Joan zen ostegunean, ekainaren 6an, 25 urte bete ziren ETA erakunde armatuak Patxi Zabaleta Aizpitarte hil zuenetik. Urtero legez, lora sortek gogoratu zuten elgoibartarraren hilketaren San Frantzisko kalean, hil zuten leku berean. Era berean, joan zen maiatzaren 25ean bete ziren 25 urte Eibarren ETAK Sebastian Aizpiri elgoibartarra hil zuenetik. 1988ko maiatzaren 25ean hil zuen ETAK Sebastian Aizpiri elgoibartarra. ETAko Eibar Komandoak hartu zuen hilketaren bere gain. Txaltxa taberna inguruan jarritako bomba-autoan hil zuten. Egun batzuk beranduago tirokatu zuten Patxi Zabaleta elgoibartarra, San Frantzisko kalean.

‘Bateragune auzia’ salatu zuten zapatuan Elgoibarren

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak *Bateragune auzian* emandako epaia salatzen manifestazioa egin zuten zapatuan Elgoibarren, Arnaldo Askatu, politika askatu plataformak deituta. *Arnaldo askatu, bostak askatu* lelopean batu ziren. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bat egin du fiskaltzarekin eta atzera bota du bost zigortuak behin-behinean libre lagatzeko defentsak aurkeztu zuen eskaera, zigorrak bost urtetik gorakoak direlako.



Hezkuntza **Bederatzi ohorezko matrikula**



IES Elgoibar-Arreiturre BHI ikastetxeko bederatzi ikaslek ohorezko matrikulak jaso dituzte, amaitu berri den ikasturtean lortu dituzten emaitza akademikoen errekonozimendu modura. Argazkiko hauek dira nabarmendutako ikasleak: Garazi Martija, Sara Arin, Itxaso Rodriguez, Gorane Ayesta, Arantxa Ferreiro, Itziar Aldalur, Miren Viñe, Ane Arakistain eta Mikel Zuñiga.

Elkarretaratzea **San Lazaro egoitzako greba**



LAB sindikatuak deituta, San Lazaro egoitzako langileek elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Elgoibarko udaletxe aurrean. Era berean, lan gatazka luzatzen ari dela-eta, kezka agertu zuten egoitzako erabiltzaileen hainbat senidek. San Lazaroko langileek bederatzi hilabete daramatzate mobilizazioetan, eta 40. eguna bete dute greban. Lan hitzarmen “duina” eskatzen dute, eta Espainiako Gobernuak ezarritako Lan Erreforma ez aplikatzea. Gatazka egoera honek halaberharrez euren senideei ere eragiten diela arrazoituta, gatazka lehenbailehen konpontzeko eskatu diete Udalari eta Samsic enpresari [San Lazaro egoitza kudeatzen duen enpresari]. Horregatik, dei egin diete herritarrei, gaur, ostirala, 19:30ean, *Gure adinekoek merezi dutelako, kalitatezko zerbitzua* San Lazaro egoitzan! lelopean egingo duten elkarretaratzean parte hartzera. Kalegoen plazan batuko dira.

Jabier Arrizabalaga **‘Belarreta’ omenduko dute** **Sanmigeldarren egunean**

Sanmigeldarren eguna ospatuko dute domekan, eta jaien barruan, urteetan Aiastiako alkate izan den Jabier Arrizabalaga *Belarreta* omenduko dute. Bazkalostean izango da hori. Aurrez, 11:30ean, meza nagusia izango dute, eta meza ondorenean, auzotarren esku-pilota partida. Bazkalostea Elustondo anai-arrebek girotuko dute, eta 17:30ean Zuhaitz Gurrutxagak barkarizketan jardungo du, lehenengo euskaraz.



Elgoibarko Berdintasun **Planari ekarpenak egiteko** **aukera**

Herritarrek aukera dute Elgoibarko II. Berdintasun Planari euren ekarpenak egiteko. Horretarako galdetegi bat bete behar da, eta behin betetakoan, emailaz berdintasuna@elgoibar.net helbidera bidali edo herritarrentzako arreta bulegoan laga. Udalaren webgunean eskura dezakezue galdetegia: www.elgoibar.org.

Udako zerbitzuaren berri **eman du EuskoTrenak**

Ekainaren 17an hasiko da EuskoTrenen udako zerbitzua (irailaren 8ra arte). Durango-Deba zerbitzua indartuko dute, eta orduerdi tren bat izango da 12:00etatik 21:40ra bitartean. Elgoibarren bi geldialdi egingo dituzte, geltokian eta Toletxegaineko geralekuan (baita zapatuetan ere).

PREKARIETATEAK BADITU MILAKA AURPEGI



Quino

Prekarietatearen Kontrako Taldea sortu berri dute Elgoibarren, eta gai horri lotuta hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. Bihar prekarietateari buruzko informazio mahaiak jarriko dituzte Kalegoen plazan, 11:00etatik aurrera, eta 13:00etan elkarretaratzea egingo dute, *Prekarietateari Stop* lemapean. Horrez gain, eguenerako, hilaren 20rako, mahaingurua antolatu dute prekarietatearen gaia ikuspuntu desberdinetatik lantzeko. Stop Desahucios, Gurutze Gorria, Emakumeen Asanblada eta Elkartzen taldeetako kideek hartuko dute parte. Hizlari horiek batu ditugu bi orriotan, eta hiruna galdera egin dizkiegu, bakoitzak ordezkatzeko duen elkartearen arabera erantzuteko. Mahaingurua 19:00etan izango da, Musika Eskolako auditorioan.

Ainhoa Andonegi

1. Nola ulertzen duzue prekarietatea zuen elkartean?
2. Generoak, identitateak eta klase sozialak zein lotura dute prekarietatearekin?
3. Zure elkartetik zer proposatzen duzue prekarietatearen aurka?

IÑAKI KORTABITARTE (Stop Desahucios)



1. Prekarietateak bizitzeko bitartekoen falta esan nahi du. Krisiaren eta murrizketen politiken ondorioz, gero eta pertsona gehiago dago bizitza duin bat egiteko beharrezko diren bitartekorik gabe. Gizartea pobretzen ari da, eta ezberdintasun sozialak handitzen. Oso aberats direnak gero eta aberatsago eta klase ertaina deitzen dena duin bizitzeko gero eta bitarteko gutxiagorekin, alegia, prekaritaterantzako bidean edo prekarietate egoeran.

Stop Desahuciosen bitarteko falta honen aurpegiatako bati egiten diogu aurre,

etxe kaleratzeen arazoari. Hipotekazko mailegua ordaindu ezin dutenak jartzen dira gu-rekin harremanetan, bereziki familiak. Kasurik ohikoena zera da, bikote bat eta haurrak, bietako bat langabezian geratzen da (edo biak), hipotekazko mailegu bat dute (gehiago ez badituzte), langabezia prestazioa bukatzen zaie eta oso hilabete gutxitan familia horren porrot ekonomikoa dator. Horrek familiaren oreka hankaz gora jartzen du, banketxearen presioa berehala hasten da (eskutitzak edo denuntzia bureau-fax bidez) eta oso azkar erantzun behar zaio etxe kalera-tzea ekidin nahi bada. Aldi berean, sarri, familiak elikagai banku hurbilenera joan behar du, Gizarte Zerbitzuetara (Udaletxera), eta dena garaiz.

Familiak ez badio presio horri ondo eusten eta legalki ondo borrokatzen, hamazortzi hilabetean etxe gabe geratuko da, eta ordaindu ezin duen bizi guztirako zor batekin. Bere heriotza zibila etorriko da, ezkutuko ekonomian lan egin beharra eta gizarte zerbitzuen mendeko izan beharra, aldi berean.

Prekarietate mota hori ere aurkitzen dugu elkartean.

2. Aipaturiko faktoreak zerikusi zuzena dute. Argi dagoena da, krisi ekonomiko, sozial eta politiko honen erdian, adibidez, emakume, etorkin eta txiro bazara zeure egoera oraindik eta larriagoa dela. Hala ere, garbi utzi nahi dugu gaur egun etxetik kaleratzeko arriskuan edonor egon daitekeela. Hau ez da pertsona talde zehatz batzuren arazo. Krisiaren aurretik hipoteka ordaindu ezin zutenen profila eta orain ordaindu ezin dutenena zeharo aldatu da. Orain mailegua ordaindu ezin dutenak gizarte zerbitzuekin inoiz harremanetan egon ez diren pertsonak dira, langabezian edo lan prekarioetan lanean bukatu duten langileez hitz egiten ari gara.

3. Kooperazioa eta elkarlana proposaten ditugu. Pentsatzen dugu, bai etxe kalera-tzeen arazoan, bai gainontzekoetan denok egin behar diegula aurre murrizketa politikei.

DANELE SARRIUGARTE (Emakumeen asanblada)



1. Sarritan prekarietatea oso muturreko baldintza eta egoerekin lotzen da, alegia, oinarri-oinarrizko beharrianak (janaria, etxea...) asetzeko arazoak izatearekin. Guk ere, noski, prekarietatetzat jotzen dugu hori, baina iruditzen zaigu hain mu-

turrera joan gabe eta soilik alor horiei erreparatu gabe ere badirela bestelako egoera prekario asko. Alokairua ordaintzeko eta tripa betetzeko lain izanda ere, altua da hori lortu ahal izateko pagatu behar den prezioa, maila psikologikoan eta pertsonaren ongizatearen mailan. Azken finean, sistema/gizarte batek hori eragiten du ez baditu pertsonen beharrak erdigunear jartzen.

2. Ikaragarria. Zure generoaren, adinarekin, arrazaren, klase sozialaren eta abarren arabera pribilegio batzuk aitortuko edo kenduko zaizkizu. Modu sotilagoan bada ere, egunero-egunero pribilegio horiekin funtzionatzen dugu, eta gizartea

botere-harremanen hari fin, baina tinkoa-rekin josten da. Hortaz, botere-harreman eta pribilegioek finkatuko dute, hein handi batean, zeintzuk izango diren prekarietatearen guneak.

3. Kontzientziazioak eta informazioak berebiziko garrantzia du. Mahai-inguruaren izenburuak berak ondo adierazten duen moduan prekarietateak milaka aurpegi ditu, eta horretaz ohartzeko oraindik lan handia dago egiteko. Prekarietatearen estigmak eta estigma horrek sortutako lotsa eta erruduntasun-sentimendua deuseztatzea ere behar-beharrezkoa da. Gero eta jende gehiago gaude prekarioak izateko arriskuan, eta hori ikusaraztea oinarritzkoa da.

REGINA MAIZTEGI
(Elkartzen Elkarte)



1. Begibistan dago egungo ereduak, hau da, kapitalismoak prekarieztatu eta esplotatu egiten duela, pobretze bidean jarri baititu munduko biztanleriaren hainbat sektore. Zergatik? Ondasunaren pilaketa gutxi bartzuen inguruan gelditzen delako, ondorioz gero eta jendarte multzo handiagoak prekarizatuak edo pobretuak bizi gara. Publikoak izan beharko lirateen zerbitzuak pribatizatuak daude, edo pribatizatzen ari dira, pobrea pobregago bihurtuz. Mugarik gabe eraikitze eredu honek bueltaezinezko kaltea egin dio gure Ama Lurrari.

2. Nahiz eta prekarizazioak gero eta sektore zabalagoei eragin, prekarizazioak badu aurpegia: gazteak, emakumeak, eta migranteak dira baldintza txarrenetan bizi direnak.

3. Lege kolpez prekarizaturiko jendarte batetik pertsona esplotarurik gabeko jendartera igarotzeko urratsak eman behar dira, ingurumenaren erasoak ekidinez eta ondorengo belaunaldien etorkizuna hipotekatu gabe, Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsonen askapena lortzeko bidea egin. Horretarako lanaren eta aberastasunaren banaketa justu bat egin behar da, zertarako? Pertsona orok dugun eskubide sozialak bermatuak izateko, honenbestez; lan baldintza duinak, diru sarrera duinak lanean, gaixorik, langabezia... egon edo jubilatu izan, etxebizitza bat erabiltzeko aukera, hezkuntza, osasuna, ... hau da zerbitzu publikoak denontzako bermatzea, azken finean pertsona orok bizitza duin bat izateko behar dituen baliabideak bermatzeko ondasunaren

banaketa beharrezkoa da.

Baina, pairatzen ari garen prekaritate prozesuari aurre egiteko, eraldaketa sozialaren bidean pausoak ematen jarraitu behar dugu, eta langileriaren eta herri sektore ezberdinen antolakuntza eta borroka ezinbestekoa da.

Apaltasunez eta, gure indarren arabera, horretan sakontzen saiatzen gara Elkartzen elkartearen. Orain Etxebizitza eskubidea bermatua izateko neurrien GIDA bat sozializatzen ari gar. Herri eta auzoei bideratuta dago, herrietatik egin dezakeguna argitzen dugu, baina egoera larri honi buelta emateko Instituzioetatik hartu beharreko neurriak zeintzuk liratekeen ere azaltzen dugu.

Eta beste GIDA bat argitaratzeaz gaude soldata sozialaren ingurukoa, soldata hori aberastasunaren banaketan datza, orain indarrean dauden diru sarrera minimoen sistema gaudituko duena, ezin baita bizi-baldintza duinik izan horrela. Gutxiengo Soldata (SMI) edota Oinarrizko errenta (RGI) 640 € inguruan dauden bitartean, eskualde honetako alokairuen batzbestekoa 700 eurokoa da.

SONIA GUIASOLA
(Gurutze Gorria)



1. Gurutze Gorriak talde ahulenen alde egin izan du lan beti, eta gaur egun gure lan eremua asko handitu da, talde ahulen kolektiboak gero eta gehiago direlako. Oinarrizko eskubideak ez edukitzea edo murriztuta izatea ulertzen dugu prekarietatez: etxebizitza, hezkuntza, osasun edo lan eskubideak ez edukitzea da prekarietatea, eta honi guztiari oinarri-oinarrizkoena gehitu behar diogu gaur egunean: jantzeko edo elikatzeko eskubide eza. Jende asko etortzen da gure bulegora, jateko edo jantzeko arazoak dituztenak, etxebizitza eskubiderik ez dutenak eta oinarrizko beharrei erantzuteko gutxienezko soldatarik ez dutenak.

2. Generoa eta prekarietatearen arteko harremanean, emakumezkoek lan munduan barneratzeko arazo larriagoak dituztela igarri dugu, bereziki adingabeak euren arduraren dituzten emakumeek. Zenbait kasutan, beraz, pobrezia emakumeengan handiagoa da gizonezkoetan baino.

Eibar-Ermuako Gurutze Gorrian 2000. urtetik dihardugu immigranteekin lanean. Haietarako bi programa ditugu martxan: Lan munduan sartzeko lan-plana eta harrera plana. Gurutze Gorrian, beraz, oso gertutik ezagutzen dugu immigranteen kolektiboa, eta baieztatu dezakegu kolektibo horrek prekarietate maila handiagoa jasaten duela, bi arrazoiengatik, bereziki:

a) Senideen babes eta diru aurrezki faltagatik: Bertako bizilagunek badute senide sare bat gertu, eta askok urteetan aurreztutako "koltxoia" ere badute.

b) Lanean hasteko zailtasun handiagoak dituztelako. Krisi ekonomikoaz gain, kolektibo honek kualifikazio maila baxuagoa dauka. Klase sozialei dagokienean, krisi ekonomikoa hasi aurretik ere arazoak zituzten klase sozialerako kideak bizi dira prekarietate egoera larrienean. Hala ere, azken urte honetan erdi

mailako klase sozialak ere egoera larrian daudela nabarmendu nahi dut, lan faltagatik eta zenbait prestazio jasotzeko zailtasunak dituztelako.


3. Oinarrizko beharrei erantzuteko programa bat jarri du martxan Gurutze Gorriak, *Orain inoiz baino gehiago* lemapean. Behar tsuenei laguntza ematea da programaren helburua: elikagaiak, higienarako produktuak, umeentzako elikagaiak, jantziak... Eibarraren eta Ermuan jarri dugu abian ekimena.

Horrez gain, Stop Deshaucios bezalako elkarteekin egiten dugu lan, eta Ermuko Udalarekin ere kolaboratzen dugu, ekonomia arrisku egoera larrian dauden familiei laguntzeko egitasmoetan.

Azken batean, gugana jotzen dutenei Euskal Autonomia Erkidegoan lortu ditzaketen laguntzei buruzko informazioa ematen diegu. Oinarrizkoena, baina, etorkinak lan munduan eta gizartean txertatzeko programekin lanean jarraitzea da. Lortzeko helburu zailak diren arren, lanean segitzeko arrazoiak badaude. Pertsonak motibatu behar ditugu formatu daitezten eta gizartean parte har dezaten.

JOKIN URAIN

EUSKAL PRESOA



1986an atxilotu zuten Jokin Urain (Mendaro, 1959) ETAko kide izatea leporatuta. 27 urtean Espainiako kartzela ezberdinak ezagutu ditu, eta gaur egun, Dueñasen (Palentzia) dago preso. 2009ko irailaren 7an, 23 urteko espetxe zigorra bete ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalak 197/06 doktrina ezarri eta kartzelaldia 2016 urtera arte luzatu zion.

Bere antzera Parot doktrina ezarri dioten Ines del Rioren kasua Estrasburgoko Auzitegira iritsi den garaian egindako elkarrizketa da hau, duela hilabete inguru egindakoa. Idatziz erantzun ditu Urainek BARREnek egindako hiru ez beste galdera guztiak. Biktinek eta presoek konponbide prozesuan bete beharreko eginkizunaz galdetu zaionean, EPPK Euskal Preso Politikoaren Kolektiboak esandakoarekin bat egiten duela adierazi du. Borroka armatuaren garaia gaindituzat jo zuen EPPK-k 2012ko ekainean, eta adierazi zuen “erantzunkizun osoz” jabetu zela “alde anitzetan eragindako minaz”.

“Agintari espainiarren atzaparra dabilen lekuan arrazoiak ez du balio txakurraren putzak baino gehiago”

1986ko urtarrilaren 10ean Espainiako Poliziak atxilotu zintuenetik preso zaude. 27 urte daramatzazu preso. Zerk ematen dizu egunero jaikitzeo indarra?

Egunero jaikitzeo indarra, egunez egun norbere zeregin txiki edo handiei ekiteko indarra eta beharra, ez nuke esango ezberdina denik kartzelan egon edo beste edozein lekutan egon. Hemen ere bizi beharra dago, hau eta hori egin beharra, eta lagunak daude, eta etxea eta etxeok ere hor daude, gure Itaka...

Zelan gogoratzen dituzu lehenengo egun haiek?

Lehen egun haietan dena zen berria, eta gogorra ere bai. Kartzelaren izaera bera, norbere ostean burnizko atetzarrak ixte hori... Dena burdina eta porlana, kartzelerok... Baina lagunak ere hor zeuden, sasoi hartan hirurogei inguru modulo bakoitzean, lehendik ezagunak batzuk. Horrek bazuen bere gozagunea desmundu honetan.

20 urtetik gora kartzelan emango zenituela jakindakoan zelan irudikatu zenuen zure etorkizuna?

Ez dakit inork egiten duen hogei urtera begirako plangintzarik nor-

berari dagokionaz. Ezetz esango nuke. Dena dela, hogei urtez kartzelan egongo nintzenik ez nuen uste, bete nituen arte. Zertarako da, ba, itxaropena, bizitzen laguntzeko eta etorkizuna edertzeko ez bada? Etorkizun hobe bat, gizarte aske eta hobe bat... ez espero izatekotan, zertarako bizi mundu honetan?

2009ko irailaren 7an, 23 urte preso egin ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalak 197/06 doktrina ezarri eta kartzelaldia 2016 urtera luzatu zizun. Nola bizi duzu zuk, eta zelan bizi dute zure ingurukoek?

197/06 doktrina ezartzeak zigorra luzatzea dakar gutxi edo asko. Ni-ri baino lehen ezarri zieten beste batzuei, eta ez ninduen ustekabean harrapatu. Hala ere, norbere usteak eta ametsak horrela hondatzeak makilkada handia ematen dizu. Hemen dagoenarentzat ezezik, etxeokentzat ere latza da kondenaren luzapen hori. Etxekoak dira gure sakabanaketa eta urrutiratzearen ondorioak gehien sufritzen dituztenak, eta sufrimendu latz horren luzapena dakar doktrina horrek.

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatu zigortu du Ines del Rio presoari 197/2006 sententzia aplikatzeagatik. Presoa “eperik laburrenean” askatzeko eskatu du, eta 30.000 euroko kalte ordaina eman beharko dio kalte moralengatik. Espainiak helegitea jarri du, baina, eta Estrasburgon da berriro auzia. Zer espero duzu?

Nahiago nuke oker banengo, baina gauza handirik ez dut espero Estrasburgok eman behar duen epai horretatik. Kasurik onenean Ines del Rioren aldeko epaia izango da, eta poztuko nintzateke hala balitz. Baina besteok, helegiteak han dauzkagunotatik hasita, hobe izango dugu kontua patxadaz hartzea. Urteak joan litezke bestean ebazpenak iristerako.

“Hau ez da politika kontua, hau ez da terrorismo kontua, zuzenbide estatuaren kontua da”, esan zien Ines del Rioren abokatu Mark Mullerrek Estrasburgoko Areto Nagusiko 17 epaileei. Asko dira bestera pentsatzen dutenak, hala ere.

Bai, Mark Mullerrek bene-benetan pentsatuko du, agian, zuzenbide estatuaren kontua dela 197/06 doktrina eta Estrasburgok erabaki behar duena. Eta lege auzia den aldetik horrela izango da. Baina ez du kontuan hartzen hemengo hauek espainolak direla, eta, epai hori Inesek irabaziz gero, kaltetuak lirakeen espainiar hauek argi eta garbi esan dutela epai-injinerutza egingo luketela. Lehen ere egin izan dituzte horrelakoak. Agintari espainiarren atzaparra dabilen lekuan arrazoiak ez du balio txakurraren putzak baino gehiago.

EHUko irakasle bi auziperatu dituzte berriki presoari eskaintzen zaizkien ikasketak direla-eta, eta azkenean absolbitu egin dituzte. Zuk egin duzu ikasketarik kartzelan? Zer nolako garrantzia du horrelako aukera izateak zuen egunerokotasunean?

Hemen zailtasun dezenteak zeuden lehen ere ikasketak egiteko, eta azken urteotan areagotu egin dira traba horiek, euskaraz ikasketak batik bat. Norberak nahi duen ariketan jardun ahal izatea, ikasketak egitea edo dena delakoa, oso garrantzitsua da, bai egunez egun zeregina izateko eta baita kaleratzeari begira presatuntza izateko ere. Lehen urtean eta bigarrenean egin nituen ikasketak batzuk, EGA atera eta horrelakoak, baina gerora nahiago izan dut neure kasa aritu, ikasketekin ziharduten lagun batzuek zelan ibili behar izaten zuten ikusita, batez ere.

Hainbat kartzela pasatu dituzu 27 urtean. Badago politikoa ez den arrazoirik sakabanaketak jarraitzeko?

Sakabanaketa eta urrutiratzearen arrazoi bakarra politikoa da. Eta ez da kontu berria. Espainiak lehen ere herritik urrutiratu eta sakabanatu izan ditu euskal preso politikoak. 1936-39ko gerrako euskal presoak ere sakabanatu eta urrutiratu zituzten. Gorroto eta mendekuaren politika ezarri izan dute beti, eta, gerraoste hartan artean umea zela bere aita ikustera Puerto de Santa Maria kartzelara joan behar izaten zuen emakumeak gaur bere seme Jose Ga-

bril Urizar ikustera joan behar izaten du Puertora. Adibide bat besterik ez da

Sarrionaindiaren lana aipatuz, zeuk esana da honakoa: “Hemen ere, hornez honaindiko desmunduan, izotz koskor barreiatuen gainean gaude, sorospen bateltxoa nondik azalduko. Eskerrak bisitekin-eta zaintzen gaituzten”. Bisitak ere zaildu dituzte azken urteotan.

Bai, bisitak ere dezente zaildu dizkigute azken urteotan. Bisitara etorri daitezkeen lagunak kopurua seira edo hamarrera gutxitzeaz gain, ume jaioberriei ere argazki eta agiriak eskatzeraino. Edo sarreran araketa umiliagarrien baldintzak ezartzeraino.

Zuri irakurria da bakardadea eta tenplu sakratuak bilatzen dituztela idazleek euren jardunerako, baina lagunartea eskura dagoenean dela ona bakarkadea. Hainbat liburu eta lan idatzi dituzu kartzelan: “Izaina”, “Adlotse”, “Gatibu sortu nintzen”, “Errotarria”, “Ez dago etxean”... Nolako da idazle baten lana kartzelan? Lau hormaz kanpo dagoena ikusi gabe, nondik edan dezake batek idazteko?

Nik ez daukat idazletzat neure burua, eskukada bat angula harrapatu duena horregatik arrantzale ez den bezalaxe. Hala ere, libururen batzuk idatzi ditut, eta horretarako ez da hau leku txarra, denbora nahikoa daukagun aldetik. Nik idatzi dudan gehienak dauka kartzelarekin zerikusia, baina horma hauetatik kanpo dagoenari buruz ere berdin idatzi lezake presoak. Irudimenaren ahalmena, edo zeure bizitzan bildu duzun jakintza apurrarena... Ez dut uste gehiagoren beharrik duenik zerbait idatzi nahi duenak. Bueno, upel handiak betetzeko adina pazientzia, hori bai. Apustu egingo nuke Job santua, elizak pazientiaren irudizat ezagutarazi zigun hura, zazpiki histeriko bat zela he-

men gauden askoren aldean

27 urte asko dira. Politikan egoera desberdinak bizi izan ditugu Euskal Herrian. Zelan bizi izan dituzue kartzelan? Zeintzuk izan ziren unerik gogorrenak?

Edozein egoera dela eta une berriak, larrialdiak nahiz pozaldiak, itxaropenak nahiz zaputaldiak, agian kalean baino kezka eta egonezin handiagorekin bizi ditu presoak. Egizu kontu aldaketa eta egoera berrien zain bizi garela hemen. Zain egotea, beti zerbaiten zain bizitzea, esango nuke dela presoaren kondena eta destinoa. Unerik gogorrenak zeintzuk izan diren esaten ez nuke asmatuko, beharbada gehiegi izan direlako zorritzarrez une latzak. Dena dela, aita edo etxeko besteren bat hil denean, edo emaztearen eta semearen atxiloketak... Pertsonalki horrelakoak izan zaizkit unerik latzenak. Kolektibo bezala ere une gogorrek mordoia izan ditugu urteotan; erdiak bakarrik aipatzeak ere gehiegi luzatuko luke erantzun hau.

Harrera taldea ere sortu dute, kartzelatik irteten diren presoari laguntzeko. Nola irudikatzen duzu zuk kartzela lagako duzun eguna?

Langabezia eta ekonomi egoera larria kontuan hartuta, beharrezkoa

“Gizarte aske bat ez espero izatekotan, zertarako bizi mundu honetan?”



Jokin Urainen anai-arrebak, haren erretratuarekin.

iruditzen zait Harrera Taldea bezalako zerbeit antolatuta egotea kalean, kaleratu berria den presoari laguntzeko. Papeleoak eta kristoak izango dira hemendik irten berritan ere, eta nahas-mahas horretan gidatuko zaituen bat izatea ondo etorriko da. Kontuak kontu, ez da larritzen nauen gorabehera, oraindik behintzat. Ez dakit noiz kaleratuko naizen, baina etortzen denean lasai hartu nahi nuke egun hori. Kaltetik sartuta hemen bizitzen asmatu badugu, errazago asmatuko dugu hemendik irtenda kanpoan bizitzen, izan kalean edo mendian. **“Aro berria”, “konponbiderako aroa” modu askotara izendatu dute. Idazle zara zu, hitzak aukeratzen trebe hortaz. Esaiguzu, nola izendatu beharko genuke?**

Ustez aro berriak izan dira lehen ere, bai gure sasoiaren eta bai aurrekoenean, eta gero ere etorriko dira. Oraingoa konponbidearen aroa den ala ez, gero ikusiko da. Bidegurutzearen antz handiagoa hartzen diot aro honi beste ezerena baino.

Eta bidegurutzean egotea, aurrera egiteko aukeratzen den bidean gogotsu ekin eta ibiltzeko animoa baldin badago batik bat, ez zait txarra eta gutxiagorik iruditzen. Gero ipiniko diogu izena aro edo bideari, egindakoa ikusteko atzera begiratzen dugunean.

Zein unetan gaude, eta nola ikusten duzu etorkizuna?

Zein unetan gauden baino gehiago zer animorekin gauden, zer gogorekin gauden, argitu beharko genuke, zalantzetan galdu ga-

be eta erabakitasunez joateko gure helburuetara bidean. Etorkizuna geuk lantzen dugun modukoa izango da batez ere, eta itxaropenez eta gogor landu behar da. Euskal Herrian garai latzak izan dira lehen ere, baina beti egon da jendea etsipenean jausi gabe ahaleginean ekin diona etorkizun hobe baten alde, eta orain ere badago. Beraz, itxaropentsu nago.

Zerbeit gehitu nahiko zenuke? Zein mezu zabalduko zenuke?

Euskal Herriaren alde, amesten dugun Euskal Herriaren alde eta herri hau osatzen dugunon etorkizun aske eta hobe baten alde, ahal dugun apurra eskaini eta eman behar genukeela guztiok, geuregatik eta gure ondoren

datozenengatik. Gizakion izaerari dagozkio ametsa eta itxaropena, eta izaera hori galduko genuke gure ametsak lortzeko itxaropenez ahaleginduko ez bagina. Eta saiatu gabe ez digu inork ezer emango

“Bidegurutzearen antz handiagoa hartzen diot aro honi beste ezerena baino”

Erretratu zaharra



1960

Aste honetako erretratu zaharra 1960ko azaroan aterata dago, Ondarrun. Juan Bautista Izeta Ziaran elgoibartarra La Arboledako eta Ondarruko musika banden zuzendaria izan zen, eta bere ibilbidean egindako lanagatik, omenaldia egin zioten erretiroa hartu zuenean. Omenaldi hartan Elgoibarko Ansola anaiak, *Txanbolin txistulariak*, izan ziren beste askoren artean. Elgoibarko senideak eta lagunak ere joan ziren ekitaldira. Ikus dezagun zeintzuk ageri diren argazkian. (Denak hilda daude).

Goiko ilaran: Begoña Lacha, Paco Aizpiri, Segundo Zengotita, Antonio Usabiaga, Jose Ansola, Demetrio Vallejo, Julian Ansola.
Behoko ilaran: Felix Ansola, apaiza, Teresa Martinez de Luko, Juan Bautista Izeta, Maxima Izeta, Angelita Azkue, Luis Ansola.

I. URTEURRENA

LUIS LARRAÑAGA ODRIA



*Urtebete pasa da
baina gure ondoan jarraitzen duzu
gure bihotzetan*

Zure sendiak



2012ko ekainaren 19an hil zen, 81 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 15ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.



Udalzaingoen autoak hobeto zeuden lehengo lekuan: "Taxi geltokia Maalara eraman zutenean, lehengo taxien tokira lekualdatu zituzten Udalzaingoa-ren autoak. Lehen zamalantzeko gunean egoten ziren, San Frantzisko iturriaren gaineko aldean, eta nire ustez, hobeto zeuden han. Aparkatzeko lekua kentzen zutela esaten zuten batzuek, baina oraingo lekuan oinezkoei egiten diete traba. Espaloitik pasatzeko lekua oztopatzen dute, bereziki euria egiten duen egunetan. Aterkia irekita eramanez, bi lagun gurutzatzeko leku gutxi uzten dute autoek. Ibilgailu altuak dira, eta bi lagun aterkia zabalik haien paretik pasatzeko zailtasunak egoten dira". Udal arduradunekin hitz egin du BARENEK gai honi buruz, eta espaloiak 1,5 metroko zabalera duela adierazi dute, araudiak eskatzen duena, hain zuzen ere.



Santa Ana kaleko babes ofizialen azpiko tunelean espaloia oso labaina dago: "Santa Ana kaleko tunelera ura erortzen da, eta espaloia oso labaina egoten da. Goroldioa ere sortu da hezetasunaren eraginez, eta ingurua oso arrisku-utsu dago. Erori eta sekulako kolpea hartu nuen, eta uste dut ezer larriagoa gertatu aurretik konpondu egin behar dela". Ricardo Garate Hirigintza arduradunarekin hitz egin du BARENEK, eta lanean ari direla adierazi du. Konponbide zaila duela ere esan du, menditik ur asko etortzen delako, baina aukera desberdinak aztertzen ari direla nabarmendu du.



Txalo bero bat 60 urtekoen bazkaria antolatu dutenei: "Eskerrak eman nahi dizkiegu 60 urtekoen bazkaria antolatu dutenei, oso ondo pasatu genuelako. Dena primeran irten zen! Mila esker, eta segi horrela!".



Txalo bero bat CD Elgoibarko jubenilen taldeari: "Txalo zaparrada handi bat eman nahi diegu CD Elgoibarko jubenil taldeko jokalariei eta entrenatzaileari, aurten egin duten denboraldi-gatik. Ohorezko jubenil mailara igo dira, eta lorpen horregatik txalo bero bat eman nahi diegu gurasoek. Zorionak, mutilak!".



‘Mur-mur’ dokumentala emango dute eguenean Elgoibarko Herriko Antzokian, preso sozialen gaineko lana

Dokumentalean Alejo Rolo elgoibartarraren testigantza ere jaso dute

Sei preso sozialen ahotik belarrira esandakoak jasotzen ditu *Mur-mur* dokumentalak. Juan Miguel Gutierrezek (Erreenteria, 1945) zuzendu eta Zazpi t’erdi ekoizpen etxeak egindako lana da, eta Donostiako Zinemaldiko Zinemira sailean estreinatu zuten. *Mur-mur* horrek ahopean, xuxurlatuz, egiten diren aitopenei egiten die erreferentzia, espetxetik irten berri diren sei pertsonaren esperientzia mingarriari. Katia Reinberg, Toñi Martínez, Oswaldo Rodríguez, Jose Maria Larrañaga, Juan Maria Tome eta Alejo Rolo elgoibartarra dira dokumentaleko protagonistak.

Gutierrezek dio Martuteneko kartzelako zine-klubarekin izandako bost urteko esperientziaren ostean sortu zitzaioela dokumentala egiteko gogoia. Horretarako, gizartratzea lortu duten sei preso sozialen profilak aukeratu zituzten. Jatorri ezberdinekoak dira sei-



rak, lapurreta delituengatik edo drogarekin lotutako delituengatik kartzelaratuak. Dokumentalean, batetik, sei pertsona horien istorioa kontatzen du Gutierrezek, eta bestetik, mundu horretatik irten ahal izateko eskua luzatu dieten pertsonen kontakizunak ere batu ditu, motxila astuna gainean hartuta kalera irtetzen diren pertsonen laguntzen saiatzeko diren boluntarioena. Loiola Etxeko kideak dira horietako batzuk, Arrats elkartekoak beste batzuk, eta Salhaketakoak beste zenbait.

koak beste batzuk, eta Salhaketakoak beste zenbait.

Preso sozialen ikusezintasuna salatzen du Gutierrezek dokumentalean, eta modu batean edo bestean, baita Euskal Herrian eraikitzen ari diren makroespekteen atzean dauden interes ekonomikoak ere.

Euskara eta gaztelania nahasten dira 80 minutu inguruko dokumental honetan.

Hellgoibarko Metal Gaua antolatu du Sinuosek zapaturako, metal musikaren jaialdia

Hellgoibarko Metal Gaua antolatu du Sinuosek zapaturako. Markina Xemeingo A.D. taldeak eta Zarauzko The Brutal taldeek kontzertu bana eskainiko dute Maalan, 22:30etik aurrera.

Gaztelaniaz abesten dute markinarrek, eta euren esanetan, *crossover* estiloko musika egiten dute. Ander Unzalu (gitarra), Iban Ormaetxea (baxua), Ritxar Dominguez (bateria) eta Igor Aizpirik (ahotsa) osatzen dute taldea. 2000. urtean sortu zuten taldea, “80 eta 90 hamarkadetakoko underground taldeenganako lilurak bultzatuta”. Urte horretan bertan grabatu zuten euren lehenengo lana, zortzi kantuko demoa, oso-osoan euskaraz. Orduetik, beste hiru lan grabatu dituzte, denak ere gaztelaniaz: *Dias Oscuros* eta *Juicio final* (2007) eta *Martxa al abismo* (2013). Euren buruaz diote, egiten duten musikak San Martin egunez gure bueltako baserrietan entzun ohi denaren itxura duela. Walls of Jeric, Etsaiak, Evolver, Cuernos de Chivo, The Devil, Mort Subite, eta antzeko taldeekin partekatu izan dute oholza.

The Brutal talde zarauztarra bost lagunek osatzen dute: Dani Aizpurua (gitarra), Aitor Manterola (gitarra), Roberto Prieto (baxua), Agustin Nothum (bateria) eta Ibon Esteibar (ahotsa). Anestesia, Brigada Slman eta Nothum taldeetan ibilitako jendea da, eta 2011an batu ziren, The Brutal sortzeko. Euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz abesten dute, eta bi lan grabatu dituzte orain artekoan: *For your consideration* (2012) eta *Killing Machine* (2013). Euren musikaz galdetuta honela definitu dute: “Galerna handi batek hondoa jotako itsasontzia kolpatzen duenean sortzen den soinuaren antzekoa da”. Euskal Death Tribute Crew, S.A., Clarkwork, A.D, Urbangrind, Gamora... taldeekin jo dute, besteak beste.

Kiribil Kalegoen plazara itzuliko da gaur, 17:30ean

Euskal jaiak ospatuko ditu Kiribilek gaur Kalegoen plazara gerturatzen diren lagunekin: txupinazoa, sokamuturra, buruhandi eta erraldoiak, erromeria... 17:30ean iritsiko da Kiribil plaza-
ra.

Musika Eskolako matrikulazio epea zabalik

2013-2014 ikasturteko matrikulazio epea ekainaren 20an amaituko da. Gaur, 19:00etan, Inazio Bereziartua eskolako talde finkoek kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian.

‘Casa Galizia’ erakusketa zabalduko dute hilaren 19an

Casa Galizia erakusketa zabalduko dute eguaztenean Elgoibarko Kultur etxean. Hilaren 29ra arte egongo da zabalik, asteleheneetik zapatura, 18:30etik 20:30era

Jagoba Arrasate, Haundiko jokalaria eta entrenatzaile ohia, izango da Realeko entrenatzailea

Bi denboraldi egin zituen Haundin jokatzen, eta 29 urterekin laga zion jokalaria izateari

Jagoba Arrasate izango da Montanierren ordezkoa Realeko entrenatzaile karguan. CD Elgoibarko talde nagusiko jokalaria eta entrenatzailea izana zen 35 urteko berriatuarra eta azken denboraldian Montanierren lan taldean zegoen. Jokalaria moduan ibilbide oparoa eduki zuen Jagoba Arrasatek: Realeko jubenilen taldean (1995-1997), Eibar B (1997-2001), Lemoa (2002-2003), CD Elgoibar (2003-2005), Portugalete (2005-2006) eta Amorebieta (2006-2007) taldeetan jokatzen. Hortaz, bi denboraldi eman zituen Elgoibarran (2004-2005 eta 2004-2006). Garrantzi handiko denboraldiak izan ziren, gainera, talde zuri-gorriarentzat. Lehenengoan Hirugarren Mailara igotzea lortu zuen Haundik, eta lortzen horretan zerikusi han-

dia izan zuten aurrelari bizkaitarrak sartutako golek. Haundirekin Hirugarren mailan jokatzen zuten denboraldian ere maila onean aritu zen, eta talde askoren arretoa bereganatu ostean, Portugaleteko fitxatu zuen azkenean, nahiz eta denboraldia Amorebietan amaitu zuen, Portugaleteko lagata. Amorebieta izan zen, hain zuzen ere, jokalaria gisa aritu zen azken taldea. 29 urterekin laga zion futbol jokalaria izateari.

Botak zintzilikatu ostean, entrenatzaile lanetan hasi zen Berriatuan bertan, eta 2008-09 denboraldian iritsi zen Haundira. Bi denboraldi egin zituen talde zuri-gorrian, eta lan ona egin zuen. Lehenengoan zein bigarrenean Bigarren B Mailara igotzeko kanporaketak jokatzen saiatu zen Haundi. Klubak



Arg.: Aitor

zorian eman dizkio Arrasateri kargu berriagatik, eta munduko zortarik onena opa dio.

Bost elgoibartar eta mendarotar bat, Gipuzkoako eskubaloi selekzioan



Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako selekzioek Korpusetako Eskubaloi txapelketa jokatu zuten Oñatin joan zen zapatuan. Nesketan Gipuzkoako selekzioak irabazi zuen txapelketa, eta talde horretan Elgoibarko bost jokalaria eta Mendaroko bat aritu ziren. Finalaurrekoetan 2-15 irabazi zioten Arabako selekzioari, eta finalean, 23-16 hartu zuten mendean Nafarroakoa.

Pilar Arriolak hirugarren egin du Galdaramiñoko mendi lasterketan

Eibarko Urki auzoko jaien barruan Galdaramiñoko mendi lasterketa jokatu zen joan zen asteburuan, eta Pilar Arriola elgoibartarrak hirugarren egin zuen. 14,5 kilometroko ibilbidean mila metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zuten partaideek, eta gainera, lokatza, euria eta haizea ere izan zituzten kontra. 125 lagunek hartu zuten parte guztira.



Herri barruan egin behar izan zuten 'Elgoibar bi erroberatan' egitasmoa, euriagatik

Distantzia laburretan bizikleta erabiltzea sustatu nahi du Kalamua Guraso Elkarteak

Kalamua Guraso Elkarteak Elgoibar bi erroberatan egitasmoa antolatu zuen joan zen domekarako. Distantzia laburrak egiteko bizikletaren erabilera sustatzea nahi dute antolatzaileek, eta horretarako, Sallobentera joan-etorria egiten dute urtean behin. Joan zen asteburuan, baina, herri barruan egin behar izan zuten egitasmoa, euriagatik. Dena den, eguraldi txarrari aurpegi ona jarri zieten, eta giro onean igaro zuten goiza. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net.



Gipuzkoako Eskubaloi Txapelketa irabazi dute Ikastolako alebin mailako neska-mutilek



Eskola Kirola egitasmoaren barruan jokatzen den Gipuzkoako eskubaloi txapelketa irabazi berri dute Elgoibar Ikastolako neska-mutilek, alebiretan. Joan zen asteburuan jokatu zituzten txapelketako finalerdiak eta finalak Zumarragako Ispilla kiroldegian, eta Elgoibarko taldeek irabazi zuten, nesketan zein mutiletan. Nesken taldeak Usurbilgo Udarregi Ikastolako taldea hartu zuen mendean finalean, eta mutilek, berriz, Donostiako La Sallekoak. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, Zumarragako alkateak eta Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Presidenteak eman zizkieten sariak.

Zuhaitz Gurrutxagak futbola utzi du

Beasain taldean esan dio agur Zuhaitz Gurrutxagak futbolari, 14 urteko ibilbidearen ostean. Real Sociedad B taldean hasi zen jokatzen 98an, eta bi urte geroago egin zuen debuta lehen taldearekin. Orduetik, Algeciras (2003-2004), Real Sociedad (2004), Rayo Vallecano (2004-2005), Real Union (2005-2006), Lemona (2006-2007), Zamora (2007-2008), Real Union (2008-2010), Lemona (2010-2012) eta Beasain (2012-2013) taldeetan aritu da. Futbolaren une gozo eta gaziak ezagutu ditu, eta ibilbide horren erreposoa egin du Facebook-en duen orrialdean. Agur festa berezia antolatu du futbolari aiasiarrak gaur gauerako. Donostiako Doka antzokian izango da, 21:00etatik aurrera. Horrez gain, domekan euskaraz estreinatuko du bere bakarrizketa, Aias-tian, sanmigeldarren egunean.



Iñigo Larizek irabazi du Fuente De-ko kilometro bertikala

Maite Maiorak bigarren egin du emakumezkoetan

Fuente De-ko kilometro bertikala jokatu zen asteburuan (Europako Mendiak, Kantabria), eta Iñigo Lariz elgoibartarrak irabazi zuen proba 39:37 denborarekin. Errekorra ere ezarri zuen, gainera. Ia bost kilometroko ibilbidean 900 metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zuten mendi lasterkariak. Amaiera estua izan zen, eta Larizek zortzi segundoko aldea atera zion helmugan bigarren sailkatuari. Guztira 200 lagunek hartu zuten parte. Iñigo Lariz Euskal Herriko Kilometro Bertikalen zirkuituko egungo txapeladuna da.

Maite Maiora, bigarren

Emakumezkoen proban goi mailako



26 atletek hartu zuten parte proban, eta tartean Maite Maiora mendaroarrak. Ezin izan zuen gainditu kilometro bertikalen munduko kopako txapeladuna den Laura Orgue, eta bigarren egin zuen, 46:41 denborarekin.

EMAITZAK

PILOTA

4 t'erdiko txapelketa

Lagunak 10 – Bergara 22 (1. mailako nag.)

Lagunak txapelketa

Bergua 16 – Sanchez 18 (Benj.)

Azpilikueta 7 – Sanchez 18 (Benj.)

Fernandez 2 – Iraolagoitia 18 (Benj.)

Azpilikueta 18 – A. Ruiz 9 (Aleb.)

Zubizarreta 18 – B. Azpilikueta 9 (Aleb.)

Mekatar xake txapelketako finala, domekan

Domekan jokatuko dituzte Mekatar- Iriondo xake txapelketako finalak. Umeen finala Urko Iriondok eta Markel Kerexetak jokatuko dute, 17:30etik aurrera. 18:00etan final erdietako galtzaileek hirugarren postua lortzeko partida jokatuko dute, eta finala 18:15ean izango da. 36 lagunek parte hartu dute txapelketan, eta orain arte, Jose Luis Larrañaga eta Mikel Leon izan dira onenak.

Hiru Txirlo txapelketako Lehendakari Saria jokatu dute bihar

Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako Lehendakari Saria jokatu dute bihar, eta Aiestia auzoko bolariak ere hartuko dute parte. Gipuzkoako txapelketako sailkapeneko lehen 64 bolariak jokatu dute txapelketa. Azpeitiko Garmendipe bolatokian izango da bihar, 16:00etatik aurrera.

Futbol eskolan izena emateko epea zabalik

CD Elgoibarko futbol eskolan izena emateko epea zabalik dago. 2003tik 2005era arteko gaztetxoek eman dezakete izena. Interesatuak www.cd-elgoibar.com webgunean aurkituko dute izena emateko formularioa. Bestela, Mintxetako bulegora ere jo daiteke, 18:30etik 20:00etara bitartean.

Jose Julio Arregi Villalobos izango da datorren denboraldian Concepto Egileko entrenatzailea



Udal agintariek inauguratu zuen barixakuan Gehituz jaia

Jose Julio Arregi Villalobos gasteiztarrak entrenatuko du Concepto Egile areto futbol taldea datorren denboraldian. Lehen Nazional mailako Atenea Gasteiz taldea entrenatu du 2000/01 denboralditik, eta horrez gain Arabako 21 urte azpiko selekzioaren entrenatzailea ere izan da. Klubak eskerrak eman dizkio Arregiri berari, eta baita Atenea klubari, Elgoibarrerako bidea erraztu dielako. Une honetan datorren denboraldirako taldea osatzeko lanetan dihardute.

Gehituz jaia

Debarbarrena areto futbol taldeak Gehituz jaia antolatu du bigarren urtez segidan, klubarako diru-sarrerak handitzeko. Areto futbola izan da asteburuko gaia Maalako parkean, eta horren harira hainbat ekintza egin zituzten barixakutik domekara bitartean. Udal agintariek batera inauguratu zuten karpa barixaku arratsaldean, eta Concepto Egile taldeko kideei aureskua dantzatu zieten gero, egin duten denboraldia saritzeko. Eguraldiaren eraginez hainbat ekintza bertan behera geratu ziren, baina umorez eta giro onean pasatu zuten asteburua.

LANA.....
Eskara

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile, hoteleko harreran, garbiketa lanetan edo nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Ospitalean ere bai. ☎ **662 267 141**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile, hoteleko harreran, garbiketa lanetan edo pertsonak zaintzen egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest. ☎ **625 895 460**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile, hoteleko harreran, garbiketa lanetan edo pertsonak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **608 474 923**
- Neska lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **648 054 046**
- Neska lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 031 329**
- Neska asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **646 821 678**
- Gizonezkoa lan bila: kamioi gidari edo banatzaile lanetarako prest. Gidabaimen guztiak ditut. ☎ **671 368 324**
- Emakumea arratsaldean edo gauetan lan egiteko prest. ☎ **680 121 252**
- Neska eskaintzen da lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **690 925 929**
- Emakume arduratsua lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen egingo nuke lan. Orduka edo interna. ☎ **602 068 313**

- Klase partikularrak ematen ditut, DBH4ra arteko mailetan. Uztailean, goizez. ☎ **688 664 727**
- Gizonezkoa lan bila. Zerbitzari edo sukalde laguntzaile lanetan egingo nuke lan. Elikagaiak eraldatzeko agiria. Gidari lanetarako ere prest. B1 gidabaimena daukat. ☎ **632 411 458**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketarako egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. Esperientziaduna. ☎ **616 457 254**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **600 005 160**
- Neska arduratsua umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 250 296 / 647 031 356**
- Emakumea lan bila. Etxeko lanetan esperientzia handia daukat. ☎ **690 064 225**
- Emakumea lan bila. Zerbitzari lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia handia. ☎ **943 530 679**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai. ☎ **722 499 586**
- Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai. Paperak legez ditut. ☎ **631 463 492**
- Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **625 895 460**
- Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna ere bai. ☎ **687 362 773**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Interna edo orduka. ☎ **626 052 165**
- Emakumea lanerako prest. Sukaldean laguntzeko, nagusiak zein umeak zaintzeko, garbiketatarako edo harreran lan egiteko prest. ☎ **608 474 923**

Eskaintza


- Emakume euskalduna behar da adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **646 163 055**
- Datorren ikasturterako LH5eko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona euskalduna behar da. ☎ **628 524 420**
- 3. mailako ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da, uztaileko. Goizez. ☎ **677 449 458 (Itziar)**

ETXEBIZITZAK.....


- Pisua alokatzen dut Urazandin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, despentsa, jangela eta egongela. Guztiz berritua. Berokuntza elektrikoarekin. ☎ **943 743 068 / 677 463 874**
- Logela alokatzen dut Elgoibar erdigunean. Etxe guztia erabiltzeko aukera: komuna, sukaldea... ☎ **672 382 466**

LOKALAK.....

- Lokal independentea alokatzen dut Meka eta Institutotik gertu. Lokal sozial edo elkarte gastronomiko batentzako oso egokia. Aparkamentu handia, legez. Aukera handiko lokala, arazorik gabekoa. Merke. ☎ **660 969 679**




P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Hamar etxe jabe osatutako komunitate bat gara, eta batek ez du hiru urtean dagokiona ordaindu. Orain hilabete batzuk horietako batek etxebizitza saldu zuen. Erreklamatu diezaiokegu zor hori etxea erosi berri duen horri? Hilabetero ordaindu beharrekoen eta etxea erosi aurreko urtebetean ordaindu beharrekoen kargu egin behar du etxea erosi berri duenak. Zorraren gainerakoa aurreko jabeari erreklamatu behar zaio. Gaur egun, komunitate horretako Administrariak izenpetutako ziurtagiri bat eskatzen da Notariotzan, eta ziurtagiri horretan jasotzen da etxebizitza horren jabeak ordainduta dituen komunitateko hileroko gastuak. **Aholkua: Zorpetze kontuen aurrean, batzordean erabaki behar dira zorra kobratu ahal izateko beharrezko neurriak.**

- Erabaki daiteke etxe-jabeen batzar batean eskriturretan bakoitzari zehazten zaion kuota aldatzea, batzarrean etxe jabe guztiak egon ez badira? Partaidetza kuotak ahobatez aldatu behar dira. Batzarrean falta diren etxe-jabeen batzarrean esandakoaren berri eman beharko zaie, eta akta jasotzen dutenetik aurrera hilabeteko epea izango dute euren iritzia emateko. Ezer esaten ez badute, erabakiarekin bat datoze ondorioztatuko da. **Aholkua: Legearen kontrako erabakien aurka egitea badago, beti ere legeak ezarritako baldintzak betetzen badira.**

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Asociación Vasca de Administradores de Empresas



• Zorionak, **Lierxo!** Gure mutilak 3 urte bete ditu! Muxuuuu.



• Zorionak, **Iker**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Asko maite zaitugu, txapeldun! Muxu bat Ireneren eta etxekoan partez.



• Zorionak, **Aimar**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, txapeldun. Muxu handi bat, familiakoan partez.




• Zorionak, **Igor**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, denon partez.



• Zorionak, **Oihanetxo!** Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean! Familia osoaren partez, 11 muxu handi. Aupa, dantzari!



• Zorionak, **sorgintxo!** Bihar 2 urtetxo beteko dituzu! Ondo pasa eta patxo erraldoi bat. Familiakoan, eta bereziki, Elenaren partez.



• Zorionak, **Miri!** Beste urte bat, beste ospakizun bat. Zure Elgoibarko lagunaren partez. Demaseko juerga egingo dugu!



• Zorionak, **Maleni!** Igandean 4 urte egingo dituzulako. Ondo-ondo pasa, eta prestatu kandelei putz egiteko. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Nerea**, gaur 7 urte egiten dituzulako. Besarkada bat, familiakoan eta Loliren partez.



• Aupa **Malder**, gaur urteak bete dituzulako. Haritz eta Intzaren partez.



• Kaixo, **printzesa!** 6 urte dagoeneko! Pa handi bat gurasoen eta Lorenaren partez, neska handi! Guapa!



• Zorionak, **Thor!** Mailuari beldurrik ez! Ospatuko dugu! Sorgin maitagarrien partez.



• Zorionak, **bikote!** Primeran pasa zuen egunean. Patxo handi bana, familiakoan partez.



• Zorionak, **Sara eta Paula!** Ondo pasa zuen urtebetetze egunean eta muxu handi bat, familiakoan partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

14 barixakua

Aisialdia

17:30 Euskal Jaiak
Elgoibarko Izarrak antolatuta,
Euskal Jaiak egingo dituzte
Kiribilka egitasmoaren barruan.
Kalegoen plazan.

Musika

19:00 Kontzertua
Inazio Bereziartua musika
eskolako talde finkoek
kontzertua eskainiko dute,
Herriko Antzokian.

Zine-forum

21:30 'Las mujeres de verdad
tienen curvas'
Haizeak antolatuta, Loredi
Salegik gidatuko du saioa.
Pelikula eta kafea pastekin
eskainiko dituzte. Kultur Etxean.

15 zapatua

Aldarrikapenak

11:00 Prekariatateari Stop
Informazio-mahaiak jarriko
dituzte, Kalegoen plazan.
13:00 **Kontzentrazioa**
Prekariatateari Stop lemapean,
elkarretaratzea egingo dute.

16 domeka

Musika

10:00 Udal Musika Bandaren
kalejira
Kaleetan zehar.
12:30 Udal Musika Bandaren
kontzertua
Herriko Antzokian.
1. 'El huesped del sevillano', (J.
Guerrero)
2. 'Guillermo Tell' (G. Rossini)
3. 'John Williams in concert' (P.
Lavender)
4. 'New York fantasy' (Kees
Vlack)
5. 'Lokatza' (Alfredo G.
Chirlaque)
6. 'We are the champions'
(Freddy Mercury)

Ospakizuna

11:00 Sanmigeldarren eguna
Aiastian.

Kirola

17:30 **Xake txapelketa**
Mekatar xake txapelketako
finalak jokatuko dituzte, Iriondo
tabernan.

19 eguaztena

Erakusketa

18:30 Galiza Etxea
Galiza Etxeari buruzko
erakusketa, Kultur Etxean.
Hilaren 29ra arte egongo da
ikusgai, astelehenetik zapatara
bitartean.

Jaialdia

19:00 **Ikasturte amaiera**
Inazio Bereziartua musika eta
dantza eskolaren ikasturte
amaierako jaialdia. Herriko
Antzokian.

20 eguena

Jaialdia

19:00 **Ikasturte amaiera**
Inazio Bereziartua musika eta
dantza eskolaren ikasturte
amaierako jaialdia. Herriko
Antzokian.

Mahaingurua

19:00 'Prekariatateak baditu
milaka aurpegi'
Prekariatateari buruzko
mahaingurua, Musika Eskolako
auditorioan.

Dokumentala

21:30 'Mur-Mur'
J.M. Gutierrezek zuzendutako
dokumentala eskainiko du
Ongarrik, Herriko Antzokian.
Zuzendaria bera etorriko da
filma aurkeztera.



**Azkeneko egunak,
udako irteeratarako
izena emateko.
Plaza mugatuak.**

**Asteburu honetan
II. Just Dance txapelketa
egingo dugu Gaztelekuan.
Animatu, eta hartu parte.**



OKINDEGIA

16 domeka:
EIZAGIRRE



BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez
Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142

Ibañez
Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

14 Ibañez
15 Garitaonandia
16 Garitaonandia
17 Barrenetxea
18 Fernandez
19 Yudego
20 Zabaleta
21 Barrenetxea

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Garitaonandia
Garitaonandia
Barrenetxea
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia
Barrenetxea



TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txarangaren kalejira amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- * Lehenengo platera: Pasta entsalada.
- * Bigarren platera: Gixatua.
- * Gazta tarta.
- * Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura.

Izenematea Elgoibarko Izarraren bulegoan edo Internet bidez egin behar da (www.elgoibarkoizarra.com). Izena emateko azken eguna uztailaren 19a.

19€

17€

Elgoibarko
Izarrako
bazkideak



PAGOAGA S.A.

- ◉ Iturgintza
- ◉ Berokuntza
- ◉ Gasa
- ◉ Igeltseritza
- ◉ Aroztegia
- ◉ Proiektuak

www.pagoagasa.com

RENOVE PLANA Galdarak, hozkailuak, hozkailuak, garbitzaileak, ontzi-garbigailuak eta leihoak



EKAINAK 1etik IRAILAK 30a arte. Kondentsasio-galdarak 200€ra arteko diru-laguntza! Hozkailu, garbitzaile eta ontzi-garbigailuetan 105€ edo 125€ ko diru-laguntza! Etxeko leihoetan %22ko diru-laguntza edo 400€ko leiho bakoitzeko gehienez edo 1000€ etxebizitza bakoitzeko gehienez.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8 - Tel.: 943 740 512 - Faxe: 943 743 565 - tienda@pagoagasa.com - www.pagoagasa.com

BILTEGIA: San Antolin, 13 - Tel. eta Faxe: 943 740 279 - almacen-taller@pagoagasa.com

20870 ELGOIBAR